Maríak 20 urte ditu

Gidoia eta marrazkiak: Miguel Gallardo
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2015
Hiru koloretan. Azal gogorra
64 orri. 17 x 24 cm. 12 euro
Nobela Grafikoa bilduma
ISBN: 978-84-16251-10-0

Ekainaren 12tik aurrera salgai

Maríaren begiratua, zortzi urte geroago

Miguel Gallardok Maríaren unibertsora garamatza berriro, munduarekiko dituen harremanetara.* María eta biok *argitaratu zenetik alabaren bizimoduan zer aldatu den eta zerk jarraitzen duen berdin kontatzen digu oraingoan.

Badira zazpi urte eta erdi *María eta biok* argitaratu zela –Maríak 20 urte ditu jada–, eta Miguel Gallardo berriro datorkigu alabaren begiratua eta hark munduarekiko duen harremana kontatzera. María, artean ere, Kanarietan bizi da, eta aita Bartzelonan, handik hiru ordura hegazkinez. Jada ez dira resort batera joaten oporretan, “giriez nekatu baikara” azaltzen du Miguel Gallardok irribarrez. “Orain, uda partean, Bartzelonara eta eta Costa Bravara joaten gara”.

Elkarrekin pasatzen duten udako hilabete eta erdi horretako egunkaria da hau, egiten dituzten eta gertatzen zaizkien gauzena. “Orain ere sarri egiten dugu barre, eta zerrendak, eta Mariak jartzen duen musika entzuten dugu. Maríak Autismoaren Espektroko Nahasmendua (AEN) du, baita lehengo irribarre itsaskor bera, eta lehengo umore berezi hori. Zortzi urte pasatu dira *María eta biok* idatzi eta marraztu nuenetik, eta harrezkero María asko hazi da, gauza batzuk aldatu dira eta beste batzuek bere horretan jarraitzen dute; halako gauzez eta etorkizunaz mintzo da liburu hau” adierazi du Miguel Gallardok.

Argitaratu zen unetik beretik, arrakasta handia lortu du *María eta biok* lanak. Gaztelaniazko edizioan 20.000 ale baino gehiago saldu dira eta beste 9 hizkuntzatan argitaratu da (errusiera, frantsesa, italiera, alemana, portugesa, poloniera, katalana, galegoa eta euskara), Catalunyako Komikiaren Sari Nazionala eskuratu zuen eta zinemarako bertsioa ere egin da, Félix Fernández de Castrok zuzendurik. Liburu horren eraginez, munduko hainbat tokitan eman izan ditu Miguel Gallardok hitzaldiak autismoari buruz, eta orain, *Maríak 20 urte ditu* honekin, neskaren begiratua nola aldatu den erakustera datorkigu.

“Marrazkiek, argitasuna eta sintesia baliatuz, Maríari mundua prozesatzen laguntzen diote, eta balio dute, baita ere, Maríaren emozioak adierazteko, bere ingurua kontrolatu behar etsiak jota bizi den norbaiten buru-funtzionamendua ulertzen ez dutenei. Liburu
xarmagarria. Aldarri bat, jende horren sentiberatasuna konprenitua izan dadin”.

Antonio Lozano, ***La Vanguardia***

Miguel Gallardo Bartzelonan bizi da orain ere, eta bertan egiten du lan, ilustratzaile, zenbait egunkari eta aldizkari nazional zein nazioartekotan, hala nola, *La Vanguardia* eta *The New Yorker*. 2008an Generalitateko *Premi Nacional de Còmic* irabazi zuen “María eta biok” lanarengatik, eta 2014an Bartzelonako Komiki Azokaren Sari nagusia bere ibilbideagatik.
Urdin-urdina dauka ilea, eta *Naranjito*en bilduma osoa.

María, artean ere, Kanarietan bizi da, ama Mayrekin eta aitona Peperekin. Hogei urteak bete berri ditu, eta, lehen bezala, gaitasun aparta du ezagutu duen jende guztiaren izenak gogoratzeko, baita minutu gutxiz ezagutu baditu ere. Orain, gainera... marraztu egiten du.

Egile beraren beste obra batzuk

María eta biok
64 orri. 12 euro
ISBN: 978-84-15685-81-4



Emotional World Tour
Paco Rocarekin
72 orri. 18 euro
ISBN: 978-84-96815-99-5



Un largo silencio
72 orri. 15 euro
ISBN: 978-84-15163-54-1

DUELUA OK CORRALEN
ET PESSIGARE*!
NIK UI...
ALL you NEED is Love
*ATXIMUR EGINGO DIZUT!

AURREKO UDAN, SA RIERAN, COSTA BRAVAN, ATXIMURREN GAIA LANTZEN HASI GINEN PIKTOGRAMEN BIDEZ, MARÍARI AUKERAK ESKAINIAZ, ETA BAITA SARIREN BAT EDO BESTE...